

1. Urdazubi-Azpilkueta-Erratzu-Elbete-Elizodno- Antxitonea Trinketea-Irurita-Arraioz

Hasierako sarea [Urdazubiko](#) frontoian egingo dugu (sakatu [hemen](#) nola iritsi ikusteko). Erran dugu, erregeen ondoren, pilotan hasi ziren lehenak elizgizonak eta merkatariak izan zirela. Urdazubik hori frogatu dezakegu, izan ere antzinako frontoi luzea San Salvador Monasterioaren ondoan zegoen Gaur egun, ia ezer ez da geratzen frontoi zaharretik, erabat zaharberritua izan zen eta.



Urdazubiko antzinako frontoi luzea. Argazkia: Indianoa baita.

Bigarren jokoa [Azpilkuetan](#) markatuko dugu. N-121-B errepidea baztan aldera hartuta, Otsondoko mendatea zeharkatu eta Azpilkuetara iritsiko gara (klikatu [hemen](#), nola iritsi jakiteko). Azpilkuetako pilotalekura elizatik sartzen da, eta, garai batean, elizkizunak akitutakoan, bertaratutakoek pilota partidez gozatzeko aukera izaten zuten. Izan ere, elizako balkoia toki pribilegiatua zen pilotazaleen erronkak ikusteko. Zalantzarik gabe, frontoi dotore eta bitxia da, elizara sartu ezean oharkabean pasatzen dena.



Azpilkuetako frontoia.



Azpilkuetako frontoia.

Hurrengo sakea [Erratzun](#) egingo dugu. Hemen, agian, kosta egingo zaigu antzinako frontoia non zegoen asmatzea, gaur egun frontisa etxe baten zati baita, eta, beraz, bi leiho ditu. “Bistak” dituen frontoia dela erran dezakegu.



“Mutildantzariak” frontoi zaharrearantz dantzan.
Gibealeko etxekeko paretan, frontoiaren frontisa atzematen da.
Argazkia: Kastonea jatetxea.

Etxalde baten paretan gisa [Elbeteko](#) frontoi zaharrearantz frontisa dago. Frontisaren ondoan, botarria agertzen da. Hori da frontoi zaharretik geratzen den gauza bakarra, gainerakoa gaur egun herriko plaza dena bihurtu baitzen.



Elbeteko frontoi zaharrearan sakerako erabiltzen zen botarria.
Argazkia: Elbeteko Posada.



Elbeteko frontoi zaharraren frontisa.

[Elizondon](#), frontoi zahar luzea Foru Plazaren ondoan zegoen. Udaletxearen izkinan antzinako "botarria" dago egun, eta jolaserako pareta, ostatuek terraza jartzen duten Mariano Izeta plazako etxe baten fatxadan ikus daiteke.



Antzinako frontoiaren frontisa etxearen paretan ikusten da.



“Botarria”, Baztango Udaleko izkin batean kokatuta dago.



Frontisa urrunean, “botarritik” argazkia aterata.

Elizondon Antxitonea trinketea nabarmendu behar dugu, izen bereko hotela eta ostatua dauden etxe barruan eraikita trinkete bat dago. Gure gomednia, ostatura kafetxo bat edo trago bat egitera sartzea eta zortea izanez gero, agian pilota partidaren bat ikusi ahal izango duzu.



Trinkete partida. Argazkia: Trinkete Antxitonea.

N-121-B errepidetik jarraituz Iruritarara iritsiko gara eta han “Errebote plaza” aurkituko dugu. 1898an eraikitako jolas-plaza zabala da, Gernaburua, Aroztegia, Herriko Eskola, Dolantxea, dolarea, Rebote eta Posada etxeez inguratuta.



Iruritako Errebote pilotalekua. Argazkia: Olari jatetxea.

Arraoizeko Urrizketa frontoi luzean amaituko dugu partida. Arraiozen pilota-soroaren adibide eder bat aurkituko dugu. Eskualdeko plazarik esanguratsuenetako bat da, belarrezkoa geratzen den bakarra. Edertasun horrek inspiratu zituen N. Basterretxea eta F. Larruquert “Pelotari” filma bertan filmatzeko.



Baliogarriak izan daitezkeen loturak:

Zer ikusi eta non egin otordu

Urdazubi: [Urdazubiko Museoa](#) ; [Ikaburu lezea](#) ; [Koska jatetxea](#)

Azpilkueta: [Ordoki Erretegia](#)

Erratzu: [Kastonea jatetxea](#)

Elbete: [Elbeteko Posada](#)

Elizondo: [Trinkete Antxitonea](#); [Futbolin/ Casino](#) ;

Irurita: [Olari jatetxea](#); [Arkupe gozotegia](#)